

## **Euskararen Erakunde Publikoak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko Protokolo Orokorren 2022ko jarduerak adostu dituzte**

*Hiru erakunde publikoek euskararen sustatzeari buruzko Lankidetzak Protokolo Orokorra berri zuten iaz 2021-2025 epealdirako eta, horren baitan, orain 2022ko Eranskina sinatu dute.*

Baiona,  
2022ko ekainaren 27a

Euskararen Erakunde Publikoak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko Lankidetzak Protokolo Orokorren 2022 urteko Eranskina sinatu dute eta, horren bidez, hizkuntza politikaren gai jakin batzuetan elkarlanean jarraitzeko konpromisoa berri zuten. 2022ko Eranskinean hiru erakundeek elkarrekin jorratuko dituzten lan arloak zehazten dira: hezkuntza eta helduen euskalduntzea, euskararen erabilpena sustatzea, euskararen aldeko gogoeta eta sustapena, ikerketa soziolinguistikoak eta lankidetzak Europako markoan.

Hezkuntzari dagokionez, ikasketak euskaraz jarraitu nahi dituzten Iparraldeko ikasleentzat EAEko eta Nafarroako unibertsitateetako eta goi mailako eskoletako sarbide aukerak eta moduak errazteko lanetan jarraitzea adostu dute erakundeek.

Helduen euskalduntzean, berriz, arreta berezia eskaini nahi zaio irakasleen berariazko prestakuntzari eta, horretarako, hiru erakundeetako bakoitzak antolatutako prestakuntza ekintzetan parte hartzeko aukera eskainiko zaie beste erakundeetako profesionalari. Hala berean, Eusko Jaurlaritzaren HABE Liburutegia Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoan zein Euskararen Nafar Institutua - Euskarabidean diharduten teknikarien eskuragai jarriko da.

Hizkuntza gaitasunaren egiaztapenari lotuta, Eusko Jaurlaritzak baliokidetasun-dekretu bat argitaratuko du 2022an, Euskararen Erakunde Publikoak eta Nafarroako Gobernuak emandako euskararen ziurtagirien aitortza orokortzeko. Eta horrekin batera, ikasprozesuen ebaluazio zein egiaztatze gintzarako irizpideak, tresnak, garaiak eta jarraibideak egoki egituratu eta uztartzen hasiko dira hiru erakundeak, irakasleen eta egiaztagitzaan diharduten adituen arteko lan-eremu bateratuak antolatuz.

Euskararen erabilpena sustatzeko bost lan arlo aurreikusten dira 2022rako: mugaz gaindiko egonaldiak, kirola, ingurune digitala, arlo sozioekonomikoa eta hedabideak. Horien artean, bereziki aipagarria da arlo digitalari ematen zaion garrantzia, hiru lan esparru zehaztu baitira: hizkuntza teknologiararen zein ingurune digitalaren esparruan sustatzen ari diren egitasmoak partekatzea (itzultzaile neuronalak, Itzuli +...), Interneten euskarak duen presentziaren garapenaren lanketa, bereziki wikipediaren bidez, eta haur eta gaztetxoekin jardura saio digital baten proiektu esperimental bat egiteko aukera aztertzea.

Arlo sozioekonomikoari datxekiola, merkataritza eta zerbitzu pribatuetan euskara erabiltzeko aukera ikusarazteko eratuko den marka berriari dagozkion informazioen partekatzea eta metodologiaren azterketa landuko dira.

Hedabideen lan jardunari dagokionez, hiru lurraldeetan euskarazko hedabideak sustatzeko dauden praktikak eta estrategiak partekatzea adostu da, bai eta euskal komunikabideen audientzia neurketa komunaren egingarritasuna aztertzea ere.

Euskararen aldeko gogoeta eta sustapena 2022ko Euskaraldian eta familia transmisioan egin nahi den lan partekatuan oinarrituko da, eta gogoeta egiteko guneak sortuko dira.

Ikerketa soziolinguistikoaren alorrean, arreta berezia emango zaio 2021ean egindako VII. Inkesta soziolinguistikoaren emaitzen azterketari, datuen esplotazioari eta emaitzen hedapenari.

Eta, azkenik, 2022rako hiru partaideek adostu dute, aukeren arabera, proiektuak aurkezten jarraitzea europar finantzaketetan eta elkarrekin lan egitea hizkuntza politika integratzeko POCTEFaren etorkizuneko programa operatiboetan.

### **Lankidetzaren euskararen sustatzeko**

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzaren 2017ko uztailaren 3an sinatu zen lehenengo aldiz, euskararen sustapenari buruzko alderdi jakin batzuetan mugaz gaindiko lankidetzaren garatzeko.

2017-2021 urteetako indarraldia izan zuen lehen Lankidetzaren Hitzarmen Espezifikoa iraungirik, lankidetzaren 2021-2025 epealdirako berriro zen, 2021eko urriaren 22an, Baionan egindako sinatze ekitaldian.

Lankidetzaren Protokolo Orokor horri esker, hiru erakundearen artean euskararen sustapenari buruzko alderdi jakin batzuetan mugaz gaindiko lankidetzaren garatzearen aldeko borondatea berrestea eta erakunde mailako harreman iraunkorrek egonkortzea eta garatzen jarraitzea da asmoa, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuz.